

BITARTEKARITZA, FAMILIARI GATAZKAK ADISKIDETASUNEZ KONPONTZEN LAGUNTZEKO (DIBORTZIOA, ZAINITZA...)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Krisi edo zaurgarritasun egoeran dauden familiei laguntzea

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Haustura fasean dauden bikoteak edo desadostasunak dituzten familiak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Gatazkaren bat konpontzeko **esku hartzeko eskaera**.
Erroldatzea.

Zertan datza?

Familia Bitartekaritzako Zerbitzua zerbitzu publikoa, borondatezkoa eta doakoa da, eta profesional inpartzialek esku hartzen dute, familia-gatazka egoeretan, auzibidetik kanpo, adiskidetasuneko akordioak lortzeko ([2.7.3.3 fitxa](#)). Familia-bitartekaritzako zerbitzu integralak gatazka hauei erantzun diezaieke:

- **Bikotea haustea eragindako gatazkak:** zaintzarekin, bizikidetza-denborekin, elikadura-pentsioarekin, etxebizitzaren erabilerarekin eta abarrekin lotutakoak.

- **Bikote-hausturarekin zerikusirik ez duten familia-gatazkak:** bizikidetza-arazoak adinez nagusi diren seme-alabekin; mendekotasuna duten pertsonen arreta eta zaintza; belaunaldien arteko gatazkak, bizikidetza-gatazkak...

Familia-bitartekaritza kanpo geratzen dira indarkeria edo tratatu txarrak dauden kasuak.

Norentzat?

Familia edo bizikidetza-gatazkaren bat duten pertsonak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Inplikaturako pertsonen artean **familia- edo bikote-lotura egotea**.

Inplikaturako pertsonetako bat gutxienez **errol-datuta** egotea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Araba

Santa Olaja de Acero, 1 (sarrera: Blas de Otero). 01010 Vitoria-Gasteiz **Telefonoa eta ePosta:**
945 171 125

smfaraba@euskadi.eus

Gipuzkoa

- Larramendi, 1 (sarrera: Prim, 24) 20006 Donostia-San Sebastián
- Gorosabel Zaharra lokala, Rondilla kalea 34B (Tolosa)

Telefonoa eta ePosta:

943 576 208

smfgipuzkoa@euskadi.eus

Bizkaia

Santutxu, 69. 48006 Bilbo **Telefonoa eta ePosta:**

944 277 788

smfbizkaia@euskadi.eus

Informazio gehiago

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** ere informazioa eska dezakezu.

[Kontsultatu informazio osoa](#)